



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko ekainaren 26a

60. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, Gobernuak Zangozan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzu bat jartzeko duen asmoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Navarra de Suelo Industrial SA-k 2007an erositako lursailek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Getzeko Ordokiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, berrikuntzaren hiriaren zerbitzurako aparkaleku publiko bat ustiatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Burgiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Tuterako industrialde berrian eginiko jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2008an enkargatu nahi dituen proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2008an erosi nahi dituen lursailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Sarrigurengo Berrikuntzaren Hirian kokatuko den zerbitzuetarako eraikinean obra garrantzitsuak egiteari buruz Nasuinsaren jarduera programan eginiko aipamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2007an gauzaturako proiektu berriek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2007an gauzaturako urbanizazio lanek eta sinatutako hitzarmenek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Nasuinsak Rocaforte industrialdea handitzeko egin dituen jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

- Galdera, Deikaztelu eta Artaxoako industrialdeetan eginiko eta egin beharreko jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakiteko Nasuinsak zer jarduera egiteko asmoa duen Getzeko Ordokiko industrialdean. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Iruñerriko eremu handietarako industrialdeko lanak egite aldera 2007an gauzatu diren jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Vianako industrialdeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, jakiteko Izize, Montes del Cierzo, Buñuel eta beste industrialderen batean lan osagarriak eginen diren. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Izizeko industrialdeko lan osagarrii buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, hiru udalen ekimenari erantzunez 95.000 metro koadro eskaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, 2007an saldutako lursail industrialek eta orubeek egiten duten metro koadro kopuruari eta hori-engatik lortutako guztizko zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Montes de Cierzo industrialdean eginen diren lan osagarrii buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Buñuelgo industrialdean eginen diren lan osagarrii buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, Nasuinsak 2008rako aurreikusita dituen urbanizazio lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, 2007ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko proiektuaren oroitidazkiko 810. programan lurzoru industrialak saltzeaz egiten den aipamenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Navarra de Suelo Industrial S.A.k galera eta irabazien kontuan lursailen salmentagatik izandako guztizko dirusarrerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, 2007an lan kontratuen eteteak ekarri dituzten enplegu-erregulazioko espedienteek ukitutako enpresei eta kaltetutako langile kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, industrialdeei buruzkoa eta Nasuinsak horietako bakoitzetik 2008an saldu nahi duen azalerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, industrialdeei buruzkoa eta Gobernuak horietako bakoitzetik 2008an saldu nahi duen azalerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Gobernuak Zangozan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzu bat jartzeko duen asmoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Gobernuak Zangozan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzu bat jartzeko duen asmoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Zangozan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzua jartzeari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Bai. Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuen 2006ko ekainean Nafarroan Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzua eskaintzen duten bi enpresekin, zerbitzu hori hedatzeko Nafarroako lau eremu berritara; horien artean, Zangozara. Orain arte, abian jarri da Lizarrari dagokiona, eta asmoa da 2008ko erdialderako Ibilgailuen Azter-

keta Teknikoko zerbitzua Sakanan ere ezartzea, Arbizun, hain zuzen.

b) Nafarroako Gobernuak eta Revisiones de Navarra enpresak sinatu zuten hitzarmenean xedatzen denez, Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzu berria Zangozan kokatu beharko da. Oraindik ez da zehaztu zein izanen den estazio berriaren kokapena; hori izanen da Revisiones de Navarra enpresak eta Zangozako Udalak, edo aukeratutako lursailaren jabeek adosten dutenaren arabera. Edonola ere, dirudienez Rocaforteko industrialdean ezar liteke, edo horren handitze-lanak egiten diren lekuan.

c) Aipaturiko hitzarmenean ezarrita dago Zangozako Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzuak abian egon beharko duela 2009ko abenduaren 31rako. Egun hori da, hain zuzen ere, Baztan-Bidasoako Ibilgailuen Azterketa Teknikoko estazioari dagokiona.

d) Hitzarmena sinatzea eta Zangozako Udalarekin biltzea, Ibilgailuen Azterketa Teknikoko zerbitzua udalerrira heltzeko baldintzei buruz informatzeko.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Navarra de Suelo Industrial SA-k 2007an erositako lursailek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Navarra de Suelo Industrial SA-k 2007an erositako lursailek egin duten guztizko zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko zein izan den 3,5 milioi euroko balioa duten lursailen erosketaren zenbatekoa guztira. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Azken zenbatekoak gainditu egin ditu 2007ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektuan ezarritako aurreikuspenak. Hain

zuzen ere, nahiz eta hasiera batean aurreikusitako diru-kopurua 3,5 milioi eurokoa izan, Nasuinsa sozietate publikoak 2007ko ekitaldian erositako lursailen guztizko zenbatekoa 4.501.331,59, €-koa izan zen, kontabilitateko datuen arabera.

b) Hona lursail horien zerrenda eta kostua:

• Getzeko Ordokia	3.500.638,73 €
• Tuteran	684.090,40 €
• Izarbeibar	313.235,00 €
• Los Arcos	3.089,46 €
• Beste batzuk	270,00 €

Erositako lursailei erabilera industrialia emanen zaie, hala dagoeneko burutu diren proiektuetan, esate baterako Los Arcosen eta Tuteran, nola gauzatzen ari diren proiektuetan, esaterako Getzeko Ordokian, edo planifikatzeko eta administrazio iza-pideak egiteko fasean dauden proiektuetan; adibidez, Izarbeibarko udalez gaindiko eraginari buruzko plan sektorialean.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Getzeko Ordokiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Getzeko Ordokiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna,

Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Getzeko Ordokiko garapen gunean dagoen azpiegitura faltari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Getzeko Ordokiko garapen gunea lotuta dago Iruñerrian eginen den jarduera ekonomikoen eremuarekin. Asmoa da industrialde berri bat eratzea, enpresaburuaren artean hazten ari den lurzorua eskariari erantzuteko. Jarduera horren bidez, lur-sailak sortuko dira, 301.661 metro kuadroan.

a) Obra horien bidez egokitu eta berreskuratu-ko dira etorkizunean jarduera ekonomikoen eremua izan denekin lotuko diren lurzorua; hain

zuzen ere, antzina eremu hartan izan zen meategi-jardueraren eragina jasan zuten lurzorua. Ondoko lanak dira egin beharrekoak: kanalizazioa, drainatzea eta iragazgaiztea, eta linea elektriko berria eraikitzea.

b) Obra horiek eta Getzeko Ordokiko jarduera ekonomikoen eremua urbanizatzeko obrak aldi berean eta elkarri loturik eginen dira. Getzeko Ordokiko obrak joan den uztailan hasi ziren. Asmoa da obrak datorren udazkenerako amaitzea.

c) Obra horientzat aurreikusitako inbertsioa 1.521.611 eurokoa da.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, berrikuntzaren hiriaren zerbitzurako aparkaleku publiko bat ustiatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du berrikuntzaren hiriaren zerbitzurako aparkaleku publiko bat ustiatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Berrikuntzaren Hiriaren zerbitzurako jarri den aparkaleku publikoari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Berrikuntzaren Hiriaren aparkaleku publikoaren ustiapena atzeratu egin zen 2007ko ekitaldian zehar. Hona arrazoia: baimen egokiak lortzeko izapide administratiboak luzatu ziren (irekitzeko lizentzia eskuratzeko, adibidez) eta aparkalekua ireki baino lehen beharrezkoa izan zen horren kalitatearen kontrola eta erabilera-saiakuntzak egitea. Horiek behar-beharrezkoak izan ziren, bermatu ahal izateko gerora aparkalekuaren erabiltzaileek hori egokiro eta segurtasunez erabili ahalko zutela.

2008ko ekitaldirako ondoko jarduerak aurreikusi dira: kontrol eta kudeaketa lanak egiteko barre-
rak eta sistema informatikoa ezarriko dira, eta bar-
nean, seinaleztapen osagarria ere jarriko da. Aurreikusita dagoen inbertsioa 120.000 € inguru-
koa da. Gaur egun aparkalekua zerbitzua ematen ari da.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Burgiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2008ko ekitaldirako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuaren programen deskribapenean Burgiko garapen gunean azpiegitura falta betetzearen gainean eginiko aipamenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Burgiko garapen gunean dagoen azpiegitura faltari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Erronkari Ibarreko enpresa-parkearen proiektua, gaur egun, Burgiko lursailetan gauzatzen ari da, eta proiektu horrek agerian uzten du Nafarroako Gobernuak industriarako lurzoruaren alorrean garatzen duen politikaren helburua dela lurraldea egituratzea eta orekatzea. Eskualde hori urrun dago jarduera ekonomikoko eremu handietatik eta lurzoru eskari handieneko lekuetatik; beraz, Erronkari Ibarreko Batzarrak eta Foru Administrazioak

erabaki zuten garrantzitsua zela Nafarroako eremu horri jarduera ekonomikoak biltzeko ahalmena izanen duen espazio bat ematea, eskualdearen onurarako izanen dena.

a) Galderan aipaturiko obra horiek Erronkari enpresa-parkearen urbanizazio eta azpiegitura obren multzoan daude sartuta. Funtsean, ondoko hauek izanen lirateke lan horiek: zuzenean industrialdearenak ez diren azpiegituren lanetatik eratortitako zenbait jarduera, baina, betiere, beharrezkoak direnak industrialdeak funtziona dezan.

Lan horietan aurreikusita dago energia hornidurarako linea elektriko bat, hornikuntzarako kanpoko sareak, ur-saneamendua eta bertara iristeko errepideak egitea.

b) Obrak aurreko ekitaldiko urrian hasi ziren, eta gaur egun egiten ari dira. Asmoa da lanak 2008ko abuztuan amaitzea.

c) MT linea, energia elektrikoa hornitzeko: 513.332,21 €

– Ur hornidura eta saneamendurako kanpoko sareak: 381.318,36 €. Sare horiek lotzen dituzte, batetik, industrialdea eta udalerrria urez hornitzen duen biltegia, eta bestetik, industrialdea eta araztegia.

– Iristeko errepideak: 206.650,13 €

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Tuterako industrialde berrian eginiko jardueri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Tuterako industrialde berrian eginiko jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Tuterako industrialdeari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Galderaren edukia zehaztu behar da. Tuterako jarduera ekonomikoen eremuaren urbanizazio obrak hasi ziren S-1 Sektorea deiturikoan. Obra horiek 2006. urtean kontratatu eta hasi ziren,

zehazki abuztuan. Lan horiek 2007ko ekitaldian amaitu ziren, eta onarpen-akta abenduaren 19an egin zen; beraz, industrialdea orduz geroztik dago zerbitzuan.

b) 2007ko ekitaldian egindako inbertsioa 22.350.423,34 eurokoa izan zen. Kopuru horretan ondoko kontzeptuak sartzen dira funtsean: urbanizazio obrak, laguntza teknikoa, linea elektrikoak, jarraipen arkeologikoa eta lursailak.

c) Gaur egun, landareztatze eta lorategi lanak egiten ari dira (2007. urte amaieran kontratatu eta hasi ziren). Asmoa da lan horiek 2008an amaitzea, eta kostua ondokoa izanen da: 906.665,05 €.

Halaber, 2008ko ekitaldian ondoko jarduera nagusi hauek aurreikusi dira: linea elektrikoa desbideratzea bi euskarri berri jarritz (360.000 € inguru), ibilgailu astunetarako aparkalekua egitea eta industrialdearen elektrifikazioa amaitzea (2.616.703,06 €).

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Nasuinsak 2008an enkargatu nahi dituen proiektuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nasuinsak 2008an enkargatu nahi dituen proiektuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nasuinsak 2008an enkargatu nahi dituen proiektuei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Proiektuak ondoko hauek dira:

- Iruñerriko C3 kolektorea.
- Lodosa-Sartagudako jarduera ekonomikoen eremua.
- Zangozako Rocaforte industrialdea handitzea.
- Izarbeibarko jarduera ekonomikoen eremua.
- Sarriguren Herri Zaharra
- Comarca 2 (Eskirozko saihebidia).

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Nasuinsak 2008an erosi nahi dituen lursailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nasuinsak 2008an erosi nahi dituen lursailei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko Nasuinsak 2008an zer lursail erosteko asmoa duen. Hona Berrikun-

tza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Haxe da Nasuinsaren oroitidazkian aurreikusitako zerrenda:

- Getzeko Ordokia.
- Lodosa.
- Rocaforte handitzea.
- Comarca 3 (Elortzibar)
- Urdiain-Altsasu.
- Izarbeibar.

Jarduketa bakoitzaren azalerak dira dagoeneko onetsi eta jendaurrean jarri diren hirigintza-espedienteetan jasota daudenak.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Sarrigurengo Berrikuntzaren Hirian kokatuko den zerbitzueta-rako eraikinean obra garrantzitsuak egiteari buruz Nasuinsaren jarduera programan eginiko aipamenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Sarrigurengo Berrikuntzaren Hirian kokatuko den zerbitzueta-rako eraikinean obra garrantzitsuak egiteari buruz Nasuinsaren jarduera programan eginiko aipamenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Sarrigurengo Berrikuntzaren Hirian kokatu beharreko zerbitzu-eraikin baten

obrei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Etorkizunean Sarrigurengo Berrikuntzaren Hirian lursail nagusian garatu beharreko eraikina zenez, asmoa zen, lehenik eta behin, eraikinaren sotoa, erdisotoa eta beheko solairuko eremuren bat egitea, eta horietan kokatzea parkean dauden enpresentzat erabilgarriak eta beharrezkoak diren zerbitzuak.

Aurreikuspen hori 2006-2011 kudeaketa planean sartu zen, baina gerora baztertu zen eta ez zen aipaturiko proiektu hori egin; izan ere, Eguesibar-ko Udalak eskatuta, udal lursailaren gaineko jardura ekimen pribatuz egin zen. Aurreikusita zegoen aurrekontua 1,79 milioi eurokoa zen.

b) Aipaturiko proiektua egin gabe geratu zen, aurretik aipatutako arrazoiak direla medio; beraz, obrak ez dira hasi.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Nasuinsak 2007an gauzatutako proiektu berriek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nasuinsak 2007an gauzatutako proiektu berriek egin duten guztizko zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2007an egin diren proiektu berrien guztizko zenbatekoari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Kontabilitateko datuen arabera, 2007an idatzitako diren proiektuen zenbatekoa guztira ondokoa izan da: 930.651,43 €.

b) Aipaturiko proiektu horien zerrenda eta horietako bakoitzaren zenbatekoa.

2007an egindako proiektu berrien zenbatekoa guztira (eurotan):

Urdiain	223.351,00
Lizarra (aurreproiektua)	133.784,00
Mendabia, handitze lanak	81.200,00
Cortes	78.125,00
Izarbeibar	68.162,95
Irunberri	61.224,40
Artaxoa	29.379,92
Lodosa	21.645,60
Tafalla hegoaldea	21.600,00
Castejón, handitze lanak	18.785,89
Tutera S-1	17.727,00
Comarca 2, Eskirotz	14.720,00
Berrikuntzaren hiria, 2. fasea	12.175,00
Tutera hegoaldea	11.500,00
Getzeko ordokia	10.473,47
Kokapenei buruzko azterlanak	126.797,20
Guztira	930.651,43

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Nasuinsak 2007an gauzatutako urbanizazio lanek eta sinatutako hitzarmenek egin duten guztizko zenbatekoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nasuinsak 2007an gauzatutako urbanizazio lanek eta sinatutako hitzarmenek egin duten guztizko zenbatekoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du 2007an egin diren urbanizazio lanen eta hitzarmenari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Kontabilitateko datuen arabera, 2007ko ekitaldian egin diren obren, proiektuen eta hitzarmenen zenbatekoa guztira ondokoa izan da: 30.413.498,42 €.

b) Hona obren, proiektuen eta hitzarmenen zerrenda, industrialdeen arabera:

Tutera s-1	21.680.845,28
Getzeko ordokia	2.676.834,44
Sarrigurengo lanak. 2. Fasea	1.305.961,56
Los Arcos – Lizarralde	1.110.587,18
Sarriguren, 1. fasea	970.962,43
Erronkari Ibarra – Burgi	395.986,88
Comarca 3, ezarpen handiak	371.314,79
Cortes	279.563,98

Urdiain	223.351,00
Comarca 2, Eskirotz	218.123,36
Berrikuntzaren hiria	175.136,75
Lizarrako aurreproiektua	139.354,04
Buñuelgo industrialdeko laguntza teknikoa	105.285,83
Mendabia, handitzeko aurreproiektua	81.200,00
Artaxoa	62.219,92
Irunberri	61.224,40
Izarbeibarko azpiegiturak	49.020,00
Izarbeibar	24.969,29
Vianako industrialdeko laguntza teknikoa	24.894,88
Lodosa	24.486,52
Tafalla hegoaldea	21.600,00
Castejón, handitze lanak	18.785,89
Eskirozko azpiegiturak	14.720,00
Cadreita	11.760,04
Tutera hegoaldea	11.500,00
Faltzes	11.432,00
Bestelakoak	342.377,96
Guztira	30.413.498,42

c) 2007an egindako hitzarmenen zerrenda eta horietako bakoitzaren zenbatekoa.

Hitzarmenen zerrenda:

Iberdrola, Tutera	5.772.860,76
Electra Berrueza, Los Arcos	98.557,29
Guztira	5.871.418,05

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Nasuinsak Rocafortede industrialdea handitzeko egin dituen jarduereri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Nasuinsak Rocafortede industrialdea handitzeko egin dituen jarduereri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Rocaforteko industrialdea handitzeko lanei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) 2004ko ekainaren 28ko erabakiaren bidez, behin betikoz onetsi zen Udalez Gaiindiko Plan Sektoriala, eta bertan jaso zen industria eremu bat ezarriko zela Rocaforteko industrialdea handitze aldera. Gero, urbanizazio-proiektua izapidetu zen, eta 2006. urtean horren hirigintzako onarpena lortu zen, bai eta hori okupatzeko beharra eta premia zegoela jasotzen zuen aitorpena ere –horren ondorioz, aipaturiko plan horretan zedarritutako lursailak desjabetu ziren–, beraz, 2007ko aurrekontuen proiektuan aurreikusi zen ekitaldi horretan bertan hasiko zirela lursailen desjabetzea eta obrak.

Alabaina, ondoren proposamen bat egin zen, plan sektorialaren eremutik kanpo uzteko aldame-

neko paper-enpresaren jabetzapekoak ziren lursailak (Smurfit Kappa Navarra, S.A.). Horretarako, hirigintza hitzarmen bat sinatu zen, eta Zangozako Udalak hasierako onespina eman zion, 2007ko maiatzaren 21ean.

Sinatutako hitzarmena betetzeko, Nasuinsa enpresak txosten bat prestatu zuen, non Udalez Gaiindiko Plan Sektorialean aldaketa puntuala egiteko proposamena jaso zen. Txosten hori 2007ko azaroaren 7an izapidetzeko aurkeztu zen, eta Nafarroako Gobernuak 2008ko urtarrilaren 22an emandako erabakiaren bidez hasierako onespina eman zion (2008ko otsailaren 11ko 19. Nafarroako Aldizkari Ofiziala).

b) 2008ko ekitaldi honetan zehar, eta aldatutako Udalez Gaiindiko Plan Sektoriala behin betikoz onesten denean, lursailak desjabetzeko izapideak hasi ahal izanen dira, eta horrekin batera, aldatutako urbanizazio-proiektua izapidetu ahal izanen da. Hori horrela, baliteke obren eskaintza ekitaldi honetan bertan edo 2009ko lehen hiruhilekoan hastea.

Industrialdearen urbanizazio eta azpiegitura obrak egiteko aurreikusi den zenbatekoa 3,8 milioi eurokoa da, eta kopuru horri gehitu behar izanen zaio lursailen zenbatekoa –lursail horiek desjabetzeko balio justuaren arabera izanen da–.

c) Asmoa da urbanizazio obrak gehienez ere 12 hileko epean egitea.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Deikaztelu eta Artaxoako industrialdeetan eginiko eta egin beharreko jardueri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Deikaztelu eta Artaxoako industrialdeetan eginiko eta egin beharreko jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Deikaztelu eta Artaxoako udal industrialdeei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Deikazteluko udal industrialdea udalarekin batera sustatu zen, Nasuinsa enpresarekin sinatutako hitzarmen baten bidez, eta dagoeneko merkatuan aurkeztu da, udalak horretarako antolatu zuen ekitaldi publiko batean, 2006ko urtarrilean. Ordurako hirigintzako izapide guztiak amaituta zeuden (urbanizazio plangintza eta proiektua onartuak zeuden) eta lursailak udalaren jabetzapean zeuden. Orduz geroztik, Nasuinsak industrialde horretako lursailak eskaini ditu dagoeneko ezarrita zeuden salmenta-prezioetan.

Hala ere, mota honetako sustapenetan ez zaie urbanizazio obrei ekiten harik eta ziurtatzen den arte industrialdeko lursail guztien %30 erosteko aukera dagoela. Hau da, gutxienez eskari ziur bat egon behar da, zeinak inbertsioa justifikatzen duen, eta halaber, dirulaguntzak eskuratzea ahalbidetzen duen –hain zuzen ere Nafarroako Gobernuak jarduera ekonomikoen udal eremuak sustatzeko asmoz ezarritakoak–.

Eskaria orain arte ezin izan da gauzatu erosteko aukera ziur batean, behar bezala formalizatutako aukera batean; beraz, aipaturiko obren hasiera atzeratu da. Lan horietarako aurreikusi den aurrekontua 1,22 milioi eurokoa da, eta asmoa da obrak zortzi hilabeteen egitea, erosteko aukera horiek formalizatzen direnetik hasita.

b) Lehenik eta behin, eskaria gauzatu behar da eta erosteko aukerak formalizatu behar dira; baliteke hori ekitaldi honetan bertan gertatzea, eta orduantxe ekinen zaie lanei. Aurreikusi den aurrekontua aurreko atalean adierazi da.

c) Artaxoako industrialdearen kasuan, 2004an lankidetzako protokolo bat sinatu zen udalarekin, eta azkenik, 2007ko uztailaren hitzarmen bat formalizatu zen.

Hirigintzako izapideei dagokienez, zenbait atzerapen egon dira, funtsean ingurumenaren alorreko arrazoiengatik, baina azkenik, hirigintzako onespene guztiak lortu dira, eta udalak lursail guztien jabetza ere eskuratu du. Hori horrela, joan den otsailean industrialdearen aurkezpena egin zen, udalak berak horretarako antolatu zuen ekitaldi publiko batean.

Sustapen horretan orain arte egin den gastua –bereziki proiektuetan– ondokoa izan da: 62.219,92 €. Horren ondorioz, praktikan eta uneotan, Deikazteluko kasuan azaldutako egoera berean gaude.

d) Lehenik eta behin, eskaria gauzatu behar da eta erosteko aukerak formalizatu behar dira; baliteke hori ekitaldi honetan bertan gertatzea, eta orduantxe ekinen zaie lanei. Aurreikusitako aurrekontua milioi bat eurokoa da.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, jakiteko Nasuinsak zer jarduera egiteko asmoa duen Getzeko Ordokiko industrialdean.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du jakiteko Nasuinsak zer jarduera egiteko asmoa duen Getzeko Ordokiko industrialdean.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Getzeko Ordokiko industrialdeari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) Behin hirigintza proiektuak onetsita, lurzorua desjabetze prozesuaren bitartez eskuratu ondoren (okupazio akten deialdia, 2007ko apirilaren 25eko 65. Nafarroako Aldizkari Ofiziala; eta 2007ko ekainaren 12, 13 eta 14ko aktak egitea), eta behin urbanizazio-proiektua izapidetuta eta onetsita, urbanizazio lanei ekin ahal izan zitzairen. Horiek joan den uztailean hasi ziren, eta asmoa da datoren udazkenean amaitzea.

Behin zehaztuta udalari emanen zitzaizkion lursailen aprobetxamendua %10ekoa izanen zela, ekintza horren ondorioz eskuratu diren lursailen azalera ondokoa izan da: 301.661 metro koadro.

Kontratatu diren eta egun oraindik egiten ari diren obren zenbatekoa guztira ondokoa da: 5,21 milioi euro.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

Galdera, Iruñerriko eremu handietarako industrialdeko lanak egite aldera 2007an gauzatu diren jardueri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Iruñerriko eremu handietarako industrialdeko lanak egite aldera 2007an gauzatu diren jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera 2008ko otsailaren 18ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Iruñerrian dagoen eremu handietarako industrialdeko obrei buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

a) 2007. urtean zehar bukatu da prestatzen Elortzibarko jarduera ekonomikoen eremua egiteko beharrezkoa zen dokumentazioa –dokumentazio hori eskatzen zen udalez gaindiko plan sektorialdean ezarritako xedapenetan–. Azken onespena

lortzeko beharrezkoak ziren eskakizunak eta dokumentazioa 2007ko maiatzean aurkeztu ziren formalki Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan, eta urte hartan proiektu horretan egin zen inbertsioa 371.314,79 eurokoa izan zen.

b) Behin betiko onespina emateke dagoenez, Nasuinsak aurreikusita daukan jarduera da urbanizazio-proiektua amaitzea, gero izapidetzera aur-

kezteko. Aurreikusitako kostua ondokoa da: 136.409 euro.

c) Industrialdearen lehen fasea egiteko epea 12 hilabetekoa izanen da, urbanizazio lanak hasten direnetik aurrera.

Iruñean, 2008ko martxoaren 5ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, Vianako industrialdeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Vianako industrialdeari buruz.

